KALAPUTXI

Mutrikuko herri-aldizkaria
2024ko maiatza - 249 zkia.

Indaleki eta Aitor Martija, aita-semeak

Bizitza errepideetan zehar

ZIRIAKO ANDONEGI SARIKETAKO IPUINAK • PAPERA, KARTOIA, GURAIZEAK
SASOI BATEKO SOINUAK (II) • UKRAINAN GERRAK JARRAITZEN DU
ALDAKETEN KUMUA GOIZEKO IZARRAN • ELIKAGAI BANKUA • IZKIREN HAZKUNTZAN

Ziortza
ILEAPAINDEGIA
Oraingo izatia
lehengoko ohitxura
ahal den ondoen jarriz
bakoitzan itxura
hainbat orrazkera ta
nahi beste pintxura
hemen egongo gera
zuen zerbitzura
943945308
Jose Maria Alcibar 10
Ziortza_ileapaindegia

ERDI-MAILA:
MANTENTZE-LAN ELEKTROMEKANIKOA
BEROA SORTZEKO INSTALAZIOAK
INSTALAZIO ELEKTRIKO ETA AUTOMATIKOETAKO TEKNIKARIA
ELIKAGAIAK ELABORATZEKO TEKNIKARIA
SOLDADURA ETA GALDARAGINTZA
GOI-MAILA:
ELIKAGAIEN INDUSTRIAKO PROZESUAK ETA KALITATEA
ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
AUTOMATIZAZIOA ETA ROBOTIKA INDUSTRIALA
MEKATRONIKA INDUSTRIALA
EFIZIENTZIA ENERGETIKOA ETA EGUZKI ENERGIA TERMIKOA
FABRIKAZIO MEKANIKOKO PRODUKZIOAREN PROGRAMAZIOA
ESPEZIALIZAZIO IKASTAROA:
ZIBERSEGURTASUNA ERAGIKETA-TEKNOLOGIEN INGURUNEETAN
LANBIDE HEZIKETA
Eman izena!
Ate irekiak!
Maiatzak 16
17:00etan
AURREMATRIKULA
Maiatzaren 6tik 24ra
Markina-Xemein I 94 616 90 02 I info@leartik.eus
www.leartik.eus
HETEL
Ikasgiltza
lea artibai
ikastetxea

Telefonoak

Osasuna

COVID-19 KORONABIRUSA

OSASUN AHOLKURAKO TEL. ... 900 20 30 50

Larrialdiak 943 46 11 11
Anbulatorioa 943 60 43 00
DYA zentrala 943 46 46 22
Mendaroko ospitala 943 03 28 00
Alzheimer elkartea 943 29 71 18

Botikak

Lasuen-Elezgarai ..... 943 19 50 26 / 626 61 13 92
Lon Apraiz ..... 943 60 32 50 / 630 05 50 97
Amaia Zalduegi 669 26 22 01
Hiart Burgoa 667 33 88 90
Arantzazu Izpizua (Eibar) 943 20 19 12

Udala, zerbitzuak...

Udaletxea 943 60 32 44
Udaltzaingoa ..... 943 60 70 48 /679 16 25 00
Gizarte Ongizatea 943 19 50 81
Anai Arte bulegoa 943 60 42 47
Anai Arte taberna 943 60 34 10
Mikel Deuna Zaharren Egoitza 943 60 38 71
Eguneko Zentroa 943 60 38 71
Turismo Bulegoa 943 60 33 78
Bake epaitegia 943 60 70 49
Kiroldegia 943 60 31 75
Liburutegia 943 60 41 82
Miruaitz pilotalekua 943 60 41 91
Ur Kontsortzioa 943 00 22 22
Zakarrak eta traste zaharrak 943 70 07 99
Posta zerbitzua 943 60 30 44

Irakaskuntza

Goizeko Izarra Ikastola 943 89 91 52
San Miguel Ikastetxea 943 60 31 95
Mutrikuko BHI Institutua 943 89 92 24
Kardala Akuakultura Institutua 943 60 71 37
Udal Euskaltegia 943 60 30 94
Udal Musika Eskola 943 60 37 80
Haurreskola publikoa 943 60 41 19

Garraio zerbitzuak

ANSOLA taxia 638 67 23 83
Lurraldebus 943 41 52 08
Pesa Autobusak 900 12 14 00
BizkaiBus 902 22 22 65
EuskoTren 944 333 333
Loiuko Aireportua 905 50 50 05

Bestelakoak

Parrokia 943 60 39 87

Iritzixa

Amaia Andonegi Egurbide

MUNDU HAU NORANTZ DOA?

Neure sentipena azaldu nahi nuke. Irakurri, entzun eta ikusitakoak ikusita «zur eta lur» gelditzen naiz. Lehendik ere, armak direla munduko negoziorik haundiena bagenekien, hala ere azken urtetan horrek... zer? eta, eskalada armamentistikoa goraka doala! Ikusi nahi izanez gero behintzat, munduak hartu duen norantzaren argazki bat ematen digu. Arrazoiak daudela atzean? Horixe egongo direla, baina mundua ulertzeko modu bat ere bai. Borroka geopolitikoak (munduaren kontrola, hegemonia...) eta negozioa, batez ere negozioa. Mendea joan eta mendea etorri, XXI.ean egon arren, esan daiteke ez dugula ikasi historiatik, eta esatera ausartzen naiz erabakitzaile politikoek, (zenbat eta mundu mailan ardura haundiagokoak izan orduan eta gutxiago) ez dutela nahi.

Munduko biztanleon kontzientzia antimilitaristagoa izaten doan neurrian, badirudi agintariek kontrako bidean doazela. Ematen du apropos egiten dutela: segurtasunaz hitzegin eta segurtasun eza sortu; gizakion ongizateaz jardun eta ondoeza eragin; bizimodu orekatuago baten alde egon eta haren ordez beldurra, besteekiko mesfidantza, eta dana ni-neu-neuretzat ideak barra-barra aireratu. Ondorioz, gero eta defentsa haundiagoa behar dugunaren mitoa lau haizetara zabaldu, eta guk sinistu. Jakinda zenbat eta arma gehiago heriotza gehiago izaten direla. Europak ere erabaki bat hartu berri du: 100.000 milioi dedikatzea gerra eta arma kontuetara.

Gu ere hemen eztabaidan, arma eta gorputz armatu gehiago behar omen dira (?). Esajeratua naizela esango du norbaitek, baina gure pentsamendua moldatzen ari dira, ari da. Normalizatzen: militarizazio eskalada, sarraski-suntsiteka-genozidio irudiak, mobilizazioei eziku-siaren egitea, inpotentzia... Esaterako, uste ez arren, mentalidade horren adar bat bezala ikusten dut nik hau: zer «nezesidade» dago udaltzainak armekin ibiltzeko? Bestela esanda, udaltzainak zergatik derrigortuko dituzte armekin ibiltzera? Sentitzen dut esatea, baina orduan ez dira udal-zainak izango, baizik udal-poliziak, salto haundi bat da! Armak erabiltzeko dira. Orain arte makina bat arazo eta eraso sufritu izan dute udaltzain hauek, hori dute meritu. Ederra meritua! esango du beste batek. Makina bat arrisku haundiko lan daude, baina ez dira konpontzen problemak traban dagoena aurretik kenduz. Eta hori da hain zuzen ere ikasi beharko genukeena. Ez da ezinezkoa, baina bada planteamendu eta pentsamendu aldaketa, guztion onerakoa. Jakina, hau nire iritzi apala da. ZUK IRAKURLE, ZER DIOZU?

Argitaratzailea
Karenka Komunikazio Elkartea
Barrenkale 12, behea
20830 Mutriku
Tel. 635 748 393
e-posta aldizkaria@kalaputxi.eus
Webgunea: www.kalaputxi.eus
Bloga www.kalaputxi.blogspot.com
Laguntzailea Mutrikuko Udala

Kolaboratzaileak
Josu Larrañaga,
Inhar Mutiozabal
Tirada 2.200 ale
Lege Gordailua SS-787/01
ISSN 1579-4792
Inprimategia EUSKALINPRI
Banaketa Kalaputxi

Kalaputxi Herri-Aldizkarixak Mutrikuko Udalaren dirulaguntza jasotzen du:
Mutrikuko Udala

www.lurraldebus.eus
900 300 340

ordutegi eta geltoki guztiak hemen:
www.kalaputxieus/garraioa

astelehenetik ostiralera

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	6:15	9:50	12:50	17:50	20:00		
Ondarroa	6:40	10:15	13:15	18:15	20:25		
Mutriku	6:45	10:20	13:20	18:20	20:30		
Donostia	(*) 7:55	11:30	14:30	19:30	---	(*) Unibertsitatetik	
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	8:00	11:00	(*) 14:30	18:00	20:30	(*) Unibertsitatetik	
Mutriku	8:50	11:50	15:25	18:50	21:20		
Lekeitio	9:35	12:35	16:10	19:35	22:05		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	7:15	orduro	20:15	21:25	22:15	22:45	
Mendaro	7:50	orduro	20:50	22:05	22:25	22:55	
Eibar	8:15	orduro	21:15	22:30	22:45	23:15	
Mallabia	8:30	orduro	21:30	22:45	---	---	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikutik: **23:25; 01:15**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(*) lanegun ostiraletan	
Mallabia	6:00	6:45	orduro	20:45	21:25	(*) 22:05	
Eibar	6:05	7:05	orduro	21:05	22:10	22:15	
Mendaro	6:35	7:35	orduro	21:35	22:20	22:30	
Mutriku	6:55	7:55	orduro	21:55	22:30	22:40	

OSTIRAL GAUEAN Mutrikura heldu: **00:25**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA						
Mutriku	6:25	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25	
Deba	6:40	9:45	11:40	13:40	16:40	18:40	
Zumaia	7:10	10:10	12:10	14:10	17:10	19:10	
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	8:10	10:10	12:10	15:10	17:10		
Deba (35 min. zain)	8:40	10:40	12:40	15:40	17:40		
Mutriku	9:25	11:25	13:25	16:25	18:25		
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	8:45	10:45	12:45	14:45	17:45	19:45	21:45
Mendaro	9:15	11:15	13:15	15:15	18:15	20:15	22:15
Soraluze	9:40	11:40	13:40	15:40	18:40	20:40	22:40
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	7:40	9:40	11:40	13:40	16:40	18:40	20:40
Elgoibar	7:45	9:45	11:45	13:45	16:45	18:45	20:45
Mendaro	8:00	10:00	12:00	14:00	17:00	19:00	21:00
Mutriku	8:20	10:20	12:20	14:20	17:20	19:20	21:20

larunbat, igande eta jai-egunak

DB03	LEKEITIO - DONOSTIA						
Lekeitio	8:00	12:30	17:00	19:00			
Ondarroa	8:25	12:55	17:25	19:25			
Mutriku	8:30	13:00	17:30	19:30			
Donostia	9:40	14:10	18:40	20:10			
DB03	**DONOSTIA - LEKEITIO**						
Donostia	10:30	14:30	17:00	(ig) 20:30	(lr.) 21:00	(ig) igande/jai-egunak (lr.) larunbatak	
Mutriku	11:20	15:20	17:50	21:20	21:50		
Lekeitio	12:05	16:05	18:35	22:05	22:35		
DB04	**ONDARROA - MALLABIA**						
Mutriku	(lr.) 7:15	8:15	orduro	20:15	21:25	(lr.) 22:15	
Mendaro	7:45	8:45	orduro	20:45	22:05	22:25	
Eibar	8:10	9:10	orduro	21:10	22:30	22:45	
Mallabia	8:25	9:25	orduro	21:25	22:45	---	

LARUNBAT GAUEAN Mutrikutik: **23:25, 23:55, 01:55, 03:55, 05:55**.

DB04	MALLABIA - ONDARROA					(lr.) larunbatak	
Mallabia	(lr.) 6:50	7:45	orduro	19:45	20:45	21:45	22:00
Eibar	7:00	8:00	orduro	20:00	21:00	22:00	22:15
Mendaro	7:35	8:35	orduro	20:35	21:35	22:35	22:40
Mutriku	7:55	8:55	orduro	20:55	21:55	22:55	23:00

LARUNBAT GAUEAN Mutrikura heldu: **01:10; 03:10; 05:10; 06:10**. (Eibarren -25 min.)

DB05	MUTRIKU - ZUMAIA					(lr.) larunbatak	
Mutriku	(lr.) 8:25	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25
Deba	8:40	10:40	12:40	14:40	16:40	18:40	20:40
Zumaia	9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	21:10
DB05	**ZUMAIA - MUTRIKU**						
Zumaia	(lr.) 9:10	11:10	13:10	15:10	17:10	19:10	(ig) 22:10
Deba (35 min. zain)	9:40	11:40	13:40	15:40	17:40	19:40	22:40
Mutriku	10:25	12:25	14:25	16:25	18:25	20:25	23.25
DB06	**ONDARROA - SORALUZE**						
Mutriku	9:45	11:45	13:45	17:45	19:45	21:45	
Mendaro	10:20	12:20	14:20	18:20	20:20	22:20	
Soraluze	10:40	12:40	14:40	18:40	20:40	22:40	
DB06	**SORALUZE - ONDARROA**						
Soraluze	(lr.) 8:40	10:40	12:40	16:40	18:40	20:40	
Elgoibar	8:45	10:45	12:45	16:45	18:45	20:45	
Mendaro	9:00	11:00	13:00	17:00	19:00	21:00	
Mutriku	9:20	11:20	13:20	17:20	19:20	21:20	

www.euskotren.eus

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
BILBOTIK		7:00	20:00
Eibar	6:14	7:14	21:14
Elgoibar	6:24	7:24	21:24
Mendaro	6:33	7:33	21:33
DEBA	**6:44**	**7:44**	**21:44**
Zumaia	7:00	8:00	22:00
Zarautz	7:08	8:08	22:08
Orio	7:15	8:15	22:15
Errekalde	7:29	8:29	22:29
Donostia	7:38	8:38	22:38

	Lehena A-O	Lehena L-I	Azkena egunero
DonostiaTIK	5:50	7:50	20:50
Errekalde	5:59	7:59	20:59
Orio	6:14	8:14	21:14
Zarautz	6:20	8:20	21:20
Zumaia	6:29	8:29	21:29
DEBA	**6:43**	**8:43**	**21.43**
Mendaro	6:52	8:52	21:52
Elgoibar	7:01	9:01	22:01
Eibar	7:11	9:11	22:11
Bilbo	8:20	10:20	23:20

Bizkaibus 902 222 265

ONDARROA - BILBO

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	5:40	19:40
Mutrikutik irten: 6:25, 7:25, 15:25		
A3915 Durangotik	6:10	20:10
Ondarroatik Bilbora **zuzenean**: 6:30; 7:30		

jai egunak

A3916 Ermuatik	6:40	20:40
A3915 Durangotik	7:10	20:10

BILBO - ONDARROA

astelehenetik ostiralera

	lehena	azkena
A3916 Ermuatik	7:10	22:10
Mutrikuraino: 14:10, 18:10, 20:10		
A3915 Durangotik	7:40	21:40

jai egunak

A3916 Ermuatik	8:10	22:10
A3915 Durangotik	8:40	21:40

ZIRIAKO ANDONEGI
mikroipuin lehiaketa 2024

Helduen maila: Aimar Goenaga Agirrezabal (Eibar, 1985)

«Bi argazki»

- Amatxi! Zer dira argazki hauek? -Ainhizek tiradera batean zeuden klip batez kateaturiko bizpahiru argazki haizatu ditu amonak kasu egin diezaion.

Ohi denez, igande arratsean bisitan doakio elkarrekin hitz-aspertu bat egiteko.

- Gure aita zenak gorde zitinan. Hemendik pentze horren bertze aldera ateratakoak ditun, ibaiaren bertze aldekoak.

- Irun erraustu zutenekoa da, beraz?

- 1936an txikituta utzi zitenan hiria. Eta ahal zutenek, fite pasatzen zitunan alde honetarat: Biriaturat.

Ainhize pentsakor geratu da; testuliburuetatatik haratagoko zertzeladez gain, ez baitzuen abuztu hartan gertaturikoaren berri,

Bat-batean, sakelakoan mezu bat jaso du Ainhizek: Bidasoa ibaia zeharkatzen ari zen migratzaile bat hil da.

Bi garai, argazki berbera.

Gazteen maila: Ainhoa Ostolaza Enjuto (Zumaia, 2007)

«Artaldeko ardi beltza»

Bazen behin ardi beltz bat; jaio zen momentutik, besteak bezalakoa ez izatearen zama zeramana; bakarra izatearena, desberdina izatearena. Inork ez zuen miresten haren artile beltzaren kolore bereizgarria. Bakarrik sentitzen zen, ozeanoaren erdian dagoen uharte bakarti baten antzera.

Egun batean, ordea, otso maltzur batek izua zabaldu zuen larrean zehar. Ardi beltza zer gertatzen ari zen ikustera hurbildu zen, eta, halako batean, otsoak ihes egin zuen oilo beldurti bat balitz bezala, ardi beltza txakur bat zela pentsatuz. Artalde guztia hura goraipatzen hasi zen, eta, orduan, besteak bezalakoa ez izatearen dohaiaz jabetu zen, desberdina, bakarra eta artaldeko ardi beltza izateaz harro.

Mutrikuar onena: Izel Izurrategi Padilla (Mutriku, 2010)

«Benetako salbatzaileak»

Markelek korrika egiten jarraitzen zuen, dragoiarengandik ihesean.

Ahotik sua botatzen zuen, gehien bat belarrietara, bere burua suz bete zedin.

Orduan, Markelek begiak ireki eta sendagilea ikusi zuen.

- Bihar bueltatu zaiteke etxera eta eskolara- esan zion.

- Eskolara? Berriz erreko nau, ez dut zauri gehiagorik nahi.

- Ba, eskatu laguntza suhiltzaileei. Inguruan asko dituzu, traje gorririk gabe eta kaskorik gabe. Baina zuk zeuk aukeratu behar dituzu.

Aipamen berezia: Eire Egaña Odriozola (Mutriku, 2015)

«Ez zaizkit liburuak gustatzen»

Bazen behin ume bat Mattin izenekoa, ez zitzaion liburuak irakurtzea gustatzen.

Logela jostailuz beteta zuen baina liburu bakarra zuen eta egunero hitz bakarra irakurtzen zuen. Egun batean kobazulo batera sartu zen, eta sorginkeria baten bidez ateak itxi eta barruan preso geratu zen.

Mattinek linterna bat zeukan eta sos kodigoa egin zuen. Lagunak hori ikusi eta laguntzera joan ziren.

Norak azaldu zion liburuen kobazulo sekretutik ateratzeko liburu oso bat irakurri beharko zuela: hasi eta bukatu.
Mattinek lortu zuen osorik irakurtzea eta kobazuloko atea zabaldu zen.

Asko gustatu zitzaionez, handik aurrera egunero-egunero 2 liburu irakurtzen zituen.

KARTOIA, PAPERA, GURAIZEAK

Dibergentzia, dekonstrukzioa eta praktika estetikoak

Munduaren mugekin topo egin dugun honetan, pandemia ahaztu nahi dugun giza tragedia izan da, baina konfinamenduaren itxialdiak «denbora» eman digu; «ez egiteko», begiratzeko, hausnartzeko... merkatuaren eta ekoizpenaren logika hautsi eta zaintzak erdigunean jartzeko. «Kartoia, papera, guraizeak» proiektuak, ikuspegi estetiko batetik, giza praxien berbideratze bat proposatzen du konfinamentuaren garaian sortutako kezkak, esperientziak eta gogoetak ahaztuta gera ez daitezen.

Eta horixe da Pello Ulaziak egin duen ariketa. Lehendik ere bazekarren etxearen inguruko ikerketa estetiko bat, artearen funtzioaz eta artistaren konpromisoaz batera, eta bide horretan egindako beste urrats bat da artelan hau. Eskura zeuzkan materialak eta tresnak dira lehengai, edonork dauzkanak etxean. Zenbat kaxa, zenbat paper, zenbat guraize sartzen dira etxean? Zenbat kaxa sartzen dira kaxa baten barruan? Zer da familia bat, ez bada bata bestearen baitan sartuz osatzen den matrioska bat?



Martxoko arratsalde isiletan...

Etxean sartu gintuztenean, 2020ko martxoan, garbi samar geratu zitzaigun bukatua zela ordura arte mundua ikusteko genuen modua. Nabarmen geratu zen, esaterako, gurpilak biraka jarraitzea zela eta dela beti helburua; ekonomia esaten diogun hori, gutxi batzuren aberastasuna eta gehienen miseria esatea ere balegokeena, ordea. Eta etxea, babesa zena ordura arte, itxitura ere izan daitekeela ohartu ginen. Kaxa bat.

Nola ihes egiten da kaxa batetik, ezin denean inora joan? Ba kaxa deseraikita. Kaxa bat zer den pentsatzen hasita.



Collagetarako irudien jatorria ezkutatu gabe, poesia bisuletarako erabilitako testuen sortzaileei aipua eginez, kaxa horiek etxera ekarri zutenari ihesi egin gabe, konpromisotik sortutako jarduna da honakoa. Zorroztasunetik, proposatutako jolasak seriotasunetik gauzatzen dira: hala behar du, gainera: guraizeak zorrotzak hobe, gure bizimodua deseraikitzeko. Ez da gauza handirik behar: kartoia, papera, guraizeak. Eta artista bat.



...etxeko leihotik...

Proiektu artistikoaren ardatza pertsonek bere gorputzarekiko eta ingurunearekiko duten pertzepzioa berriz irudikatzean datza; gorputza, etxea eta ingurumena, gorputz, egitura eta espazio habitatu bezala erlazionatzen ditu, matrioska baten erara, espazio partekatu eta interkonektatu batean.



...munduari so.



Era berean, liburua objektu artistiko gisa konfekzionatu da; collage, poemario bisual, eskultura eta testuekin, diskurtso ekosofiko baten inguruan artikulatuak, non forma eta diskurtsoa konklusio estetiko berean elkartzen diren.

Azpeitiako Sanagustin kulturgunean eta Bilboko «Zirika!» herrigunean aurkeztutako liburu hau Iñigo Martinez Peña filosofoaren hitzaurreak osatzen du: gaur egun, «hodeia»ren zentraltasunaren aurrean, objektua, materia aldarrikatzen du Peñak, Byung-Chul Hanen hitzen laguntzaz.

Izan ere, «Kartoia, papera, guraizeak» ez da liburu bat; ez behintzat ohiko liburua, edo liburua soilik. Objektu bat da, beste gauza askoren artean. Liburu honek hiru dimentsiodun izaerarekin jolasten du, materialtasunarekin.

Artea egia adierazteko modu gisara ulertzen du autoreak, zirikatzeko, erresonantziak eragiteko balio duena, eta materialitatea deseraikitzearen bidez eraikitzen du liburua ere. Objektuak erresistentzia direla, geldialdi bat dakartela, dio Byung Chul-Hanek, eta besteengan oihartzuna, erresonantzia, eragiteko aukerak ematen dizkigutela. Horrela ulertuta, «Kartoia, papera eta guraizeak» ez da liburu bitxi eta ederra soilik, artelana da, objektu bat, espazio bat, gordeleku edo etxe bat ere bai, bere oskol propioduna, eta, horiekin guztiekin batera, gure bizimoduari eta okupatzen ditugun espazioei buruzko gogoeta ere bada.

Formek, koloreek, hiru dimentsioek, poema deseraikiek, eskuz eginiko objektuek... hauek guztiek osatzen dute proiektua, autoreak artearen espresio materialena ekartzen digularik. Orain liburua mesanotxean eduki eta materialtasun horrek irekitzen dizkigun bideetan barrena aritzea geratzen zaigu.

Salgai: Sabina (Mutriku), Hontza (Donostia) eta Zirika! (Bilbo)

ORIENTAZIO-PROBA MUTRIKUN

Maiatzaren 26an burutuko den lasterketa Gipuzkoako ligaren baitan kokatzen da; hain zuzen ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Gipuzkoako Mendi Federazioak, eta Gipuzkoako Orientazio Taldeak (GOT) antolatutakoa. Aurtengoa bigarren aldia izango da, iaz ere Mutrikun burutu baitzen ligako seigarren lasterketa.

Parte hartu nahi dutenek kategoria ezberdinak izango dituzte aukeran: horia, laranja eta gorria, ibilbidearen luzera eta zailtasun mailaren arabera mailakatuta; errazena horia da. Zenbat eta luzeagoa izan ibilbidea, baliza edo puntu gehiago aurkitu behar dira. Banaka zein taldeka parte hartzeko aukera dago, eta horren araberako sailkapen ezberdinak izango ditugu. Haurren maila Eskola Kirolaren barruan kokatuko da: benjamin mailatik gora.

Gogoratu, izena ematerakoan banaka, taldean zein familian apuntatu gaitezke. Ibilbidearen mailaren arabera irteera ordua ere ezberdina izango da. Eta, maila bakoitzeko kideak ere bi minutuko tartearekin irtengo dira, aurreko partaideekin ez sortzeko nahasmenik. Sailkapenean sartzeko ibilbideko puntu guztiak dagokien ordenan pasatzea beharrezkoa da. Beraz, gozatzeko eta ondo pasatzeko lasterketan parte hartzera animatzen zaituztete antolatzaileek.

MARTXAN DA ONTZI ARINEN GAIKAKO BILKETA HOBETZEKO PROBA PILOTUA

Debabarrenako Mankomunitateak eta Mutrikuko Udalak bat egin dute udalerriko ontzi arinen gaikako bilketa hobetzeko helburuarekin. Horretarako, proba pilotua jarri dute martxan maiatzaren 1ean hasita: gailu adimendunak jarri dira dagoeneko herriko 24 edukiontzi horietan, eta herritarrek ontzi arinak sailkatzeko duten ohitura aztertuko da hauen bidez.

Proiektua herritarrekin elkarlanean garatzeko, lehenik martxoan bilera irekiak egin dira Mutrikuko hainbat auzotan, proiektuaren nondik norakoak azaltzeko. Apirilean, aldiz, herritarren ekarpenak jaso dira, eta maiatzaren 1ean jarriko da martxan proiektua.

"Harro sentitzen gala Debabarrena eskualdeko hondakinen gaikako bilketako datu onenak dituelako Mutrikuk. Hala eta guztiz ere, hobetzeko tarte handia dugu oraindik. Ondorioz, mutrikuar guztiok proiektuan parte hartzera animatu nahi ditugu" adierazi du prentsaurrean Ainhize Azpiazu Azkarraga, Mutrikuko jarduneko alkateak.

Proiektuak helburu du ontzi arinen gaikako bilketa sustatzea, eta gaika biltzen diren ontzi arinen kopurua eta kalitatea handitzea. Horretarako, herritarren inplikazioa ezinbestekoa da. Hori horrela, puntuazio sistema bat ezarriko da, eta hilabetero Mutrikuko produktuz osatutako saskia, 100 euroko baliokoa, emango zaio puntu gehien eskuratzen dituen herritarrari.



Uzuri
RPS 183/12
ELGOIBAR - DEBA
optika audio
DEBA, Ostolaza 7 - Tel. 943 19 21 92
ELGOIBAR, San Frantzisko 21 - Tel. 943740359



MENDIAN OINEZ ETA KORRIKA

Naturaren zaintza eta jasangarritasunaren mezua zabaltzeko helburua hartuta, *Aran Running Club*-ek Zarautz-Mutriku mendi-lasterketa antolatu du, ekainaren 2an. Zarauztik 09:00etan abiatuta, 30 km.-ko ibilbidea egingo dute korrikalariek Mutrikuko helmugara iritsi aurretik. Egun berean, Mutriku-Mutriku 12 km-ko mendi-lasterketa laburra ere antolatu dute, Goiko plazatik 10:30etan abiatu eta Laranga auzoan eta Galbaixon barrena ibili ondoren Goiko plazan amaituko dena.

Dena korrika egitea ez da izango, eta goizeko 08:00etan Arnoko mendi-ibilaldia abiatuko da, betikoa, Mutrikuko 22 km.-ko martxa, Burumendi Mendi Elkarteak antolatuta.

ANAIARTE BILTOKIA
MUTRIKU



ANAIARTE EKIMENEZ BETETA

Jubilatu eta pentsiodunen elkartea izanda ere, Anaiarte Biltokia elkarteko lagunek hainbat ekitaldi antolatzen dihardute herritar guztiok parte hartzeko modukoak. Horien artean, aurki bi dira datozenak:

Maiatzaren 29an, eguaztena, Uxue Alberdirekin solasaldi irekia, «Belarriko kilkerra» liburuaren inguruan, arratsaldeko 17:30etan liburutegian.

Ekainaren 1ean, larunbata, 12:30etan Beheko plazan hasita, Kantu jira herrian zehar.

Bi ekitaldi horien ostean dator hirugarrena, ekainaren 15ean, bazkideei gordetakoa, Anaiarte Eguna izango baita: Elkartekideen arteko bazkari ederra.

«MALEN JAIAK 2024» KARTEL LEHIAKETA

Ekainaren 10era bitarte aurkeztu ahal izango dira herriko Malen jaietarako kartel lehiaketara aurkeztu nahi diren lanak. Parte hartzaileek honako baldintzak bete beharko dituzte (informazio osoa www.mutriku.eus webgunean:

. Banaka edo taldeka aurkeztu ahal izango da. Egile bakoitzeko, lan bakarra.

. Lanak orijinalak izango dira.

. Teknika eta kolore librean, DIN-A3 neurrian eta euskarri zurrunean aurkeztu behar da egindako lana. Gainera, A3 neurriko «jpeg» formatuan eta 300 ppp-an.

. Lanak sinatu gabe aurkeztuko dira. Lanarekin batera, kartazal itxi batean, egilearen identifikazio-datuak: izen-abizenak, adina, helbidea, e-posta eta telefonoa.

. Lelo edo ikur politikoak, homofoboak edo sexistak diituzten kartelak ez dira onartuko.

. Kartelean agertu beharreko testua honako hau izango da:

MUTRIKU
MALEN JAIAK 2024
uztailaren 21etik 25era

Sari bakarra izango da, 400 eurokoa, eta epaimahaia udaleko komunikazio arduradunak eta Arte Eskolako kideek osatuko dute.

Aurtengoan, umeen kartel lehiaketa Malen Txiki egunean egingo da zuzenean.

APALLU
ITURGINTZA
Telf.: 600 316 381 - 943 02 98 61
San Agustin,3 - Mutriku
apallu@apallu.es www.apallu.es

BERISTAIN
DENDA LURRINDEGIA ESTANKOA
Barrenkale, z/g
943 60 35 44

ETA GERRAK JARRAITZEN DU...

Dagoeneko pasatu dira ia bi urte Ukraina eta Poloniako mugara egin genuela bidaia argi-generadoreak, hainbat janari, gizonentzako jantzi eta botak, garbiketarako osagaiak, botikak zein benda eta esparatrapu... guztira ia 2000 kilo material eramateko. Laster jaso genituen eskerrak eta eramandako materialaren partiketaren argazkiak.

Baina gure bidaiaren bueltakoa ere berezia izan zen. Shustova ahizpak, hiru ama gazte, gurekin ekarri genituelako. Donostian eta Irunen izan zuten babesa, baina denbora gutxikoa izatea espero zutena luzatzen joan zen, eta Espainian bizitzera ohitu behar izan dira.

Anna Shustova ahizpa nagusiena, 27 urtekoa, bere seme-alaba Nikyta eta Milanarekin, Quintana Martín Galíndez (Burgos) herrian bizi da bertakoek jarritako etxe batean. Elbarritasun gogorra izan arren, herriko nagusien etxean hasi zen garbiketa zerbitzuan, eta orain urtebete lortu zuen Alexei, bere senarra, eurekin bizitzera etortzea. Milana eta Nikyta eskolara joaten dira eta gaztelania menderatzen dute. Euren lagunak egin dituzte, eta, jada, ez dute hainbeste galdetzen Ukrainako kontuez.

Alena Kirillnova ahizpetan bigarrena, 26 urtekoa, bere seme Ilyushia eta Borisekin Burgosko La Prada herrian bizi da. Ilyushia bere lehengusuekin joaten da Quintanako eskolara; Borisek garun paralisi handia du, eta Burgosko ospitaletan errehabilitazio prozesuan dabil. Haurraren egoera dela eta lortu zuten Alexander senarra eurekin bizitzera ekartzea. Alena lan txikietan ibiltzen da, eta senarra igeltsero lanetan. Bizitza errazik ez badute ere, gustura bizi dira La Pradan, baina Ukrainara itzultzeko ametsarekin lo egiten dute.

Hiru ahizpetatik gazteenak, Anastashia Shustovak, 25 urte ditu, eta 6 urteko Dennis semearekin La Pradan eta Quintanan bizi izan da, baina orain urtebete inguru Ukrainan zegoen bere mutil lagunarekin bizitzera itzuli zen, Kiev hiritik 150 bat kilometrora, nahiko leku lasaira. Orain hilabete batzuk beste haur bat izan dute.

Ukrainar gehiago gure bizitzan

Txernobilko eztanda izan ondoren, «Uda garbia» programaren baitan, gure etxean izanak ziren Vova Kosko, Katya Salymova eta Petya Gnidendo. Gerrak zeharo aldatu du euren bizitza.

Vovak, bere emazte Tatiana eta Nadyla eta Victoria alabekin, eduki zuen aukera Ukrainatik irteteko, beti egoera ezegonkorrean, eta gure etxera iristea ere lortu zuten 2023ko otsailean, baina martxoan Ukrainako gobernuak deitu zion soldadu gisa. Azterketa egin eta ez zioten eman gaitasunik gudan jarduteko, baina euren herrian, Ivankyvekon, bizitzea erabaki zuten. Hala ere, errusiarren erasoak gehitzean CEAR elkartearen esku jarri ziren, eta, irailetik, Alemaniako hegoaldeko Kork herriko errefuxiatuen etxean bizi dira.

Katyak lau udara egin zituen gure artean. Ukrainan unibertsitate ikasketak burutu eta munduan zehar ibili da lanean. Orain zazpi bat urte ezkondu zen eta semetxoarekin bizi da Luxenburgon. Katya ez zuen harrapatu gerrak, baina bai Lilya ahizpa eta ama. 2022an guda hasi berrian alde egiteko aukera izan zuten eta Portugalen bizi dira.

Shustova ahizpak euren haurrekin

Petyak, Vovaren ilobak, 11 bat uda egin zituen gure artean, oso ezaguna izanik mutrikuarren artean. Gerra hasi zenean 23 urte zituen, eta gobernuak 18 urtetik 60ra urtetarako gizonezkoak militarizatu zituenez, ez zuen Ivankyv herritik mugitzeko aukerarik izan. 2023ko otsailean, beste 33 kiderekin aste batzuetako formazio militarra jaso, eta lehen lerrora bidalia izan zen. Komunikatzen gara noizbehinka, baina bidaltzen dizkigun argazkiak beldurgarriak dira; 33 kide haietatik 8 besterik ez daude bizirik. Honela zioen otsaileko bideo baten: «Atxe!, bonba horiek hemendik 5 bat kilometrotara jausten daude, eta oso beldur gara... jende asko hiltzen dago...» Ez da erraza egoera. Gure aldetik animoak bidaltzen dizkiogu, baina...

Eutsi goiari Petya, zurekin gaude ta!!!

GUDAREN DATUAK

· Ukrainaren %18 Errusiaren esku dago eta guda lerroa 1000 bat kilometroko luzera du.

· 2022 urtean 43 milioi ukrainar bizi ziren bertan eta 6,4 milioi errefuxiatu.

· Errefuxiatu gehienak Errusian bizi dira 1,2 milioi, Alemanian eta Polonian milioi bana eta Espainian 200 mila.

· Milaka gudari dira hildakoak alde bietan, baita milaka zauritu ere.

· 30 bat mila zibil hil dira Ukrainan, 500 bat haur eta 19 bat mila zauritu.

Joxemari Etxaburu

ZINEA

CHILDREN OF MEN

Etorkizuna irudikatzea ez da batere erraza, are gutxiago hain azkar aurreratzen (eta atzeratzen) den errealitate honetan. Era baikor batean pentsatzea posible da, biharko egunak ekarri ahal dituen ametsak irudikatuz; baina, zer gertatuko litzateke ametsgaiztoa egia bihurtuz gero?

Children of men filmak distopia batean kokatzen gaitu, non urteak pasa diren haurrik jaio gabe. Itxaropenik gabeko mundu horretan, gizadiaren alderdirik gaiztoena ezagutuko dugu, gizakiek beren interes hutsen alde eragindako borroka ikusita.

Pelikulako pertsonaiak itzulirik gabeko erabakiak hartzera behartuko ditu istorioak, beren morala kolokan jarriz. Zorionez, bizitzaren alde borrokatzen dutenak ere izango dira, uste duguna baino hurbilago dagoen mundu horretan.

«Zertarako kezkatu, bizitzak bere erabakiak hartuko baditu?»



FITXA TEKNIKOA

Zuzendaria: Alfonso Cuarón
Gidoia: Timothy J. Sexton, David Arata, Mark Fergus, Alfonso Cuarón (P.D. James idazlearen liburutik)
Aktoreak: Clive Owen, Julianne Moore, Michael Caine, Clare-Hope Ashitey, Chiwetel Ejiofor
Urtea: 2006 **Iraupena**: 1 h 49 min

LITERATURA

Maitasun kapitala

Karmele Jaio

Zer da maitasuna? Erantzunik gabeko galdera honi erantzuten saiatzen da Karmele Jaio bere azken eleberrian. Olga da eleberriko protagonista; azken honen maitale izan den Martinen hiletan hasten da eleberria. Momentu horretan hasten da protagonista Martin eta bere arteko maitasun harremana piezaz pieza desmuntatzen.

Zer ezkutatzen da gure maitatzeko moduen atzean? Gu geu al gara norbait maite dugunean? Nor bilakatzen gara? Maitasunari buruzko tesi bat zuzentzen ari da Olga, eta horrek, askotan, sentitzen duenari hitzak jartzen lagunduko dio.

Emakumeen arteko adiskidetasunak ere badu bere lekua eleberrian zehar. Olga, Laia eta Bakarneren arteko solasaldiek hainbat egoeraren inguruan hausnartzera bultzatzen du irakurlea. Horixe da eleberri honen irakurketa: maitasunaren inguruko hausnarketa polit bat.

«Maitatzeko edo larrua jotzeko norbait aukeratu behar baduzue, izan dadila koadro baten barruan egotera kondenatzen ez zaituen norbait. Izan dadila koadroa zuekin batera lau eskutara margotzeko gogoa duen norbait.»

ARRIETA
AUTOZERBITZUA
Aliprox
J.M. Altzibar etorbidea · 943 60 31 01

aparra
ZURETZAKO MODA
www.aparramoda.com
Erdiko Kale 29 20830 Mutriku Tlf. 943 604 594 645 033 561

Indaleki eta Aitor Martija, aita-semeak

Bizitza errepideetan zehar

Bizitzaren zati haundi bat kamioi baten kabinan bizi izan du Indaleki (1936) aitak, eta bizitzen ari da Aitor (1972) semea. Etxetik urruti, arrisku eta presiopean, beti erlojuari begira ezarritako orduan helmugara iristeko, eta, hurrengo egunean, berdin jarraitzeko etengabeko joan-etorrian. Lana eta familia uztartu ezinaren jardunean. Hala ere, gustuko dute gidaritza. Halabeharrez utzi behar izan zuen aitak lana. Semeak dio txikitatik zuela gogoko, eta horretan jarraitzea espero duela. Kalaputxiri kontatu dizkiote euren abentura ete desbenturak.

Noiz eta nola hartu zenuten lehen aldiz kamioi baten gidaritza? Zein izan zen lehen bidaia?

Indaleki: Hamalau urterekin hasi nintzen lanean «Txirloia»neko tailerrean, Ibirrixako «Hotel handi»ren beheko solairuan. Bertatik hasi zen sutea 1958ko San Pedro Txiki egun tamalgarri hartan; zorionez kantatzera aterata nintzen eta ez nuen bizi izan sutea hurbiletik. Baina, haren ondorioz, lanik gabe gelditu nintzen, eta batera eta bestera joan behar izan nuen aldizkako lanak egitera, Pedro Manuelen astilleroan lan finkoa aurkitu nuen arte.

Bertako kamioiarekin hasi nintzen endredatzen lan-orduak bukatu ondoren, arrankatu, aurrera, atzera... Joakin «Matxet»-ek, Joseba anaiak eta azkenean Leonardo Ituartek lagundu zidaten maneiatze ikasketan. Horrela, egun batez, Lutxanara (Bizkaia) zaku-fabrikatik zakuak eraman behar genituela-eta, Leonardok eraman ninduen bere alboan karga-deskargan laguntzeko. Eguerdirako bueltan ginen, eta Mauleoneko atarian aparkatu zuen kamioia. «Goazen bazkaltzera, eta ondoren jaitsi ezak heuk moilara eta garajean sartu» esanez agurtu ninduen. Ez naiz ahazten indiar gorriak eta legatza nuela bazkaltzeko, baina Zumalabeneko errebuelta pasatu beharrak barruan sortu zidan harrak ez zidan utzi ezer probatzen. Lortu nuen errebuelta beldurgarri hura pasatzea, eta «zerbait banauk» esan nion neure buruari moilan izatean.

Hurrengo egunean Leonardok: bihar Donostiara karneta ateratzera. Bidaia motza, baina esanguratsua. Hala, 1958ko urte hartan atera nuen primerako karneta. Pedro Manuelek baina, espeziala behar nuela erremolkea ibiltzeko, eta, beste azterketa egiteko zazpi hilabete tartea igarotzea beharrezko zenez, ezin. Zela-hala, egin zuen gestio batzuk, eta azterketa egiteko aukera eman zidaten, eta gainditu.

Aitor: Eskolako oporretan aitarekin kamioian ibiltzea gustatzen zitzaidan. Anekdota bezala, nire lehen bidaia luzea aitaren azkena izan zela. Nik hamabost urte nituen Madrilera abiatu ginenean. Deskargatzen geundela sentitu zuen lehen oinazea, baina Kataluniara jarraitu genuen, eta han sentitu zen gaizki bigarren aldiz; hala ere, programatutako bidaiarekin jarraitu genuen. Ni Santuaranen mutrikuar batzuekin utzi, eta berak Asturiasera jarraitu zuen. Etxera iritsi eta bigarren egunera Donostiara eraman behar izan zuten anbulantzian. Akabo gure txoferra! Harrezkero, kantatzeko izan duen gustuari eta ohiturari jarraitzen dio lanen ordez.

Karneta atera ondoren furgoneta batekin hasi nintzen edari partitzaile Gipuzkoan zehar. Urtebete bat ibili nintzen lan horretan, eta era guztietako kamioientzako karneta ateratzeko aprobetxatu nuen. Hiru ardatzeko kamioiekin ere ibili nintzen, baina 19 metroko kamioi-gondola bat ibiltzea egokitu zitzaidanez, hura hartzeko larunbat baten hiru orduko praktikak egin nituen eskolan nire kontura, antzeko kamioi batekin.

Hurrengo egunean, igandea, hartu kamioi-gondola hori, Tuteran kristalez kargatu eta Italiara, Milan inguruko herrixka batera. Ez zen erraza izan herrixka hura aurkitzea!

Zeintzuk izan dira zuen ohiko ibilbideak? Eta zein luzeena edo bitxiena?

In: Pedro Manuelen lan nagusia arraina eta egurra garraiatzea zen, eta, hala, Madrilera, Sevillara, Bartzelonara... izaten ziren gure bidaiak, beti Espainiaren mugen barnean.

Hurrengo lana «Ingemar»-ekin izan nuen, bertan ekoiztutako harriak garraiatzen. Bidaia asko Lleidako Pirinioetan dagoen Benasque herrira, eta beste pila bat Algecirasera; handik bueltakoak Jerezen kargatutako cognac-botilekin Gipuzkoako biltegietara... Zenbat tona cognac edan diren hemen!

Aurrerako urteak agentziekin egin izan dut lan. Eurek antolatzen zizkiguten eraman beharreko karga ezberdinak.

Ai: Hiru urtetan nire karga nagusia altzairua izan zen, Orbegozo (Zumarraga) eta Olarra (Loiu) enpresetatik Italiako Milan lurraldera. Beste urte bat egin nuen arrainarekin, Ondarroan eta Pasaian kargatu, eta Madrilera eta Sevillara, tartean beste herri batzuetan ere karga utziz. Bueltakoa, Barbaten Mediterraneoko antxoa kargatu, eta Mercabilbaora. Berriro ibili nintzen altzairu eta makina-erramintarekin Milan aldera eramateko, eta bertako agentzia bat tarteko Irun eta Oionera bueltako bidaiak, sukaldeko altzariak gehienbat azken honetara. Zazpi bat urte egin ondoren, garraio bereziekin ibili nintzen beste urtebetean. Ondoren, eta horretan jarraitzen dut, arrainarekin Conservas Ortiz enpresan Espainia barnean.

Izan zarete inoiz kamioi baten jabe? Nolakoa da soldatapekoen egoera?

In: Ez. Beti izan gara soldatapeko. Egoera ezberdinak bizi izan ditugu, baina, denborak aurrera egin ahala, gero eta derrigortuago ibili behar izan dugu: oraindik kamioia kargatzen, eta galdezka noiz helduko garen. Azken aldian bai, baina lehenago ez genuen

LEA-ARTIBAI
Hileta zerbitzuak - Beilatokia
MUTRIKU Tel.: 943 60 41 20
ONDARROA: Arta Bide, 24 - Tel.: 946 830 960
Mug: 659 879 268

Gidatzea beti izan da gogorra, lehen eta orain

takograforik; orduak eta orduak botatzen genituen bolanteari helduta: beti logure. Ez zegoen gaur dauden abantaila teknikorik ere, eta norberak konpondu behar izaten zuen bidean izandako zenbait matxura, berdin motorra izan, gurpila edo beste zenbait arazo txiki, giroa edozein zela ere. Elurretan ere tokatu izan zait matxura txikiak konpontzen ibili beharra.

Ai: Niri ere tokatu izan zait gurpilak lehertzea, ez bat eta ez bi, hiru ere bai une berean, zama haundia neraman baten Alemaniarako bidean, baina, egia esan, teknologia aldetik hobeto prestatuta daudela kamioiak, presioa lehen baino handiagoa badugu ere. Uneoro gaude kontrolatuta satelite bidez; uneoro dakite noiz, non, gelditzen zaren, eta zenbat denbora egiten duzun geldirik.

Alde batetik kargak, bidea, orduak, baina beste aldean familia duzue. Nola uztartzen da hori?

In: Ez da erraza. Sasoi baten komunikatzeko aukerarik ere ez —telefonoak etxeetara 1975 aldera iritsi ziren gutxi gora behera—. Aste bukaerak ere halakoak ziren: beti berandu etxeratu, eta igandean bertan, goiz edo arratsaldez hartu behar karga askotan. Etxera heldu, seme-alabek aurpegira begiratu eta ezagutzen ez —hala berresten du Aitorrek; berak aitarekin lana utzi ondoren izan duela harreman normala, aita beti zegoen kanpoan; ama zen presente zegoen bakarra—. Tristea, benetan.

Ai: Nahiz eta komunikazio aldetik orain abantaila handiak egon, ez da berdin aurrez aurre elkar ikusi edo pantaila baten bidez. Zaila da lana eta familia uztartzea behar den heinean. Umea txikia zelarik, atzerrira joateari utzi nion, denbora gehiago egiteko etxean, eta hala ere...

Diote gidarien artean halako harreman bereziak sortzen direla...

In: Bai. Bazegoen hurbiltasun bat, bakarrik ikusten genituelako geure buruak, babesgabe zenbait errepidetan. Jantokietan elkartzen ginen askotan, eta saiatzen ginen, ahal bazen, ibilbide berdina genuen kamioiekin karabana antzeko zerbait antolatzen, behar izanez gero elkarri laguntzeko. Baina sasoi bateko giro hori konpetentziak galarazi zigun. Zenbat eta autonomoago izan, orduan eta elkartasun gutxiago.

Ai: Gure kasuan autonomia horrek maila handia du. Arazo berriak dira orain sortzen zaizkigunak: lapurretak. Kabina barnean barrutik itxita egoten gara atseden uneetan, elkarrengandik hurbilen, eta kamerak jarrita dauden lekuetan ahal bada.

Zeintzuk ezberdintasun ikusten dituzue kamioari lotutakoak, teknikoak eta bizipenak, aita eta semearen artekoak?

In eta Ai: Ez dago esan beharrik teknologia aldetik gaur abantailak daudela, baina gertatu izan zait niri —dio Aitorrek— hamazazpi metroko kamioiarekin komenduko tunelaren antzeko baten aurrean gertatzea. Gaur satelite bidez GPSak gidatzen zaitu —nahiz eta okerrak gertatzen diren—.

Dirua izan zen arazoetako beste bat, izan ere beti poltsikoak beteta izan behar zenituen edozer gauza gertatuta ere: ez zegoen tarjetarik. Eta Europan zehar bazinen, estatu bakoitzeko diru motak poltsiko beteetan. Gaur beste mundu bat da, baina berdin, gogorra izaten jarraitzen du.

PAUSO
PODOLOGIA KLINIKA
943 01 49 05 - 747 43 48 52
Astillero Kalea 2 behea, Deba

OKINDEGIA
POTERO
DENDA.....943603643
OKINDEGIA.943604512

SASOI BATEKO SOIÑUAK (II)

Badira oharkabian pasatzen zakuzen soiñuak. Oiñetakuek zaratia ateratzen deue, ezta? Zer jakin leike naturaren soiñuei erreparatu ezkero? Burdixek txistua joten zeuen? Aldabia ala tinbria, zein nahixago? Galdera bakoitzak ez dauka erantzun bakarra…

Zapatak

Txanguluak edo *txankluak* eruaten zitxuen oiñetan arrantzaliek. Behian egurra eta gaiñian telia. *Oholezko zapatak* ere esaten zixuen. Itsasora juateko, etxetik ertenda, eskilleretan behera zijuazela, sekulako zaratia ateratzen zeuen oiñetako harek. Eskabetxian lan egitxen zeuen andriek ere *txankluak* ibiltzen zitxuen, baiña harek ez zaken bat ere telarik, egur hutsezkuak ziran.

Oiñetako harek zaratatsuak ziran bezela, beste muturrian abarketak zozen. Kalian barruna zijuazela, abarketadunek zaratarik txikixena ere ez zeuen egitxen. 1790eko garoil edo iraillaren 2xan, gabeko 10etan, Antonio de Arrizabalaga mutrikuarra Zabiel etxiaren kantoiko etxe baten sartzen ahalegindu zan, bentanatik. Zarataka hasi zan bertako Ramona de Echeverria, eta lapurreta-ahalegin haren berri eman zoanian oiñutsik edo abarketak jantzitxa zauala azaldu zoan: *con mucho silencio sin duda, porque el tal hombre ó hiva desnudo de pies o con alpargatas, eta aurrerago a causa de tener alpargatas se havia huido sin cuasi sentirle.* Ustezko lapurra, bere etxeko ohian topatu zeuen, lo-plantak egitxen, *con las medias puestas, y ligas atadas*.

Naturaren abotsa

Orain eta lehen, haizia beti haize. Dana dala, begiratu daigun atzera. Portu aldian, esaterako, eskertzekua izaten zan haizetxua ibiltzia arrantzallien erropak ondo sikatzeko. Sasoi baten itsasorako erropari liñazi-olixua ematen zakon –*manipaturia*– euririk ez pasatzeko. Itsasotik bueltan zirazko erropa harek esekitzen zitxuen: galtzak, txaketak, suestak... Haiziak dantzan eta zarataka ibiltzen zitxuan erropa gogor harek.

Itsasuan haizia bihar izaten zan bela-txalopak batetik bestera juateko, baiña tamaiñan, gehixegi ere ez. Kontu jakiña da haiziak, gogor jotzen doanian, txistua ateratzen doala. Lehengo arrantzaliek ez zeuen txisturik joten itsasuan, harek haize gogorra ekarri zeikelakuan.

Eurixa ere lehengua degu. Baiña, eurixak herrixan eragitxen zitxuan zaratak bestelakuak ziran aspaldi. Teillatu hegaletatik amiltzen ziran ur-txorrotadek zarata haundixa ateratzen zeuen herriko kalietan, eta bat-bateko euri-zaparradekin estoldek gaiñezka egitxen zeuen.

Esan geinke haiziaren eta eurixaren indarra era gordiñaguan bizi zeuela lehengo mutrikuarrek.

Telebistarik ere ez zanian, eta etxe barrutik erten gabe, errez jakin zeiken ze eguraldi egingo zoan hurrengo ordu eta egunetan: txorixek ematen zeuen horren berri. Itsasoko txorixak aditzen ziranian, kalatxorixak-eta, itsaso txarra eta denboralia. Okilla kantuan zabillenian, eurixa laster zan. Hegaberak *ki-ki-ki* azaltzen ziranian edurra zatorren. Antzar asko entzun edo ikusi ezkero, jakiña zan, bixaramunian hotza, *frantzi-ipar* haizia. Ernarak eta katakak entzundakuan, udaberrixa zatorren… Orain ere halaixe segitzen deue txorixok hizketan, baiña aditzen al dixau?

Bestelako pistak ere bazozen: etxeko egurrek, eskaillerek konparaziotarako, ohi baiño zatara haundixagua ateratzen zeuenian, egun gitxitxan eurixa. Azken baten, giro umelak egurrak haztia ekartzen deu; eguraldi sikuak, berriz, lehengo tokira eruaten zitxuan.

Kalatxorixak.

Mutrikuko kalietan txakur eta katu asko ibiltzen zan. Orain txakur gehixago doz, baiña lehen egun guztian euren kasa ibiltzen ziran, batetik bestera, baitxa taldeka ere. Zaunkak, uluak… Katuak ere aukeran zozen. Otsaillian, katuen hillian, soiñu-banda ederra zabillen herrixan.

Baserrialdian etxeko eta kanpoko animalixak entzun zeikezen, etengabe. Goguan dakat oraindik Ziñuako Pedro Txurruka zanari (1920-2008) ikasitxakua: *beliak karraskaria, zaldixak irrintzia, txarrixak kurrinkia, ganauak murrusia, ardixak orruia, astuak arrantzia, danak egitxen debe orrua diferentia*.

Mutrikun kale-baserrixak ere bazozen eta, jakiña, baserritxarrak zozen tokixan animalixak ez ziran urruti ibilliko: behixak, astuak, oilluak… Txarrixak ere ez ziran falta kalian. Sabanikan, esaterako, batek baiño gehixagok akorduan eukiko deu Popanarraxeneko txarrixa.

Txarrixak, dana dala, ezin ziran euki kalian solte. 1800eko apirillaren 28xan Udalak horixe esateko agindu zion herriko bikarixuari. Herri-mezan –*al tiempo del ofertorio de la misa popular*– azaldu bihar izan zoan txarrixak jabien zaintzapian euki bihar zirala: *que nadie traiga libres los cerdos por las calles y otros puestos, pena de dos reales de multa por cada vez que fueren cogidos; y quando los saquen los dueños, sea con vista, para evitar el que difundan el mal olor, y causen otros perjuicios*. Usaiñaz gaiñera, zaratak ere aditxuko ziran herriko kalietan.

1896. urtian, berriz, txarrixak egunez txarritokixan euki biharra gogoratu zoan Udalak: *y que tampoco se saquen los cerdos despues de las ocho de la mañana*.

1897ko udal ordenantzak jasotzen doanez txarrixak edonoiz hil zeikezen, hori bai, goizeko zazpirak baiño lehenago: *la matanza de cerdos podrá hacerse en cualquier época del año, precisamente antes de la siete de la mañana*. Deigarrixa egitxen da agindu hori, kontuan hartzen badegu txarrixa hiltzan zanian, kurrinka eta txillixo haundixak egitxen zitxuala lepapian kutxillua sartzen zixuenian.

Bazan Mutrikun ganauen zaratak altuago entzun zeikezen toki bat: Zubiaga plazako *mataderixa* edo ganauak hiltzeko tokixa.

Goizian goiz txahalak-eta matadeira ekartzen zitxuenian murrusaka hasten ziran. Ez zan hori zarata bakarra, haren ondoren etorriko ziran mazetiarekin buruan jotzia eta lurrera amiltzia...

Askori kostau egingo zako imajiñatzia, baiña sasoi baten Mutrikun askoz asto gehixago zauan automobillak baiño. Baserritxarrak astua hartuta bajatzen ziran kalera, plazakua saltzera. Plazan jenerua saltzen zozen bitxartian, astuak asto-tokixetan lagatzen zitxuen: komendu aurrian, Sabanikako lokal baten... Hori dala-eta han eta hemen arrantzak eta bestelako zaratak entzun zeikezen.

Handik hurre zauan pelotalekua ere ez zan toki isilla: pelotarixen txillixuak eta pelotakadak, ikuslien aupadak... Tarteka, idi-probak ere egitxen zitxuen kontrakantxan, eta Malenak amaitxutakuan kale-baserritxarrak batu eta alkarrekin gari-jotia egitxen zeuen frontoian.

Burdi-ardatza eta Humboldt

Kamioirik ez zauan sasoian burdixak erabiltzan ziran jenerua eruateko. Burdixak egurrezkuak ziran ixa osorik, baitxa burdi--ardatza ere. Ardatzak zaratia edo txistua ateratzen zoan, *tiaooo*, endemas kargauta zijuanian *iiiiiii*, eta baserritxarrak harro, ia zeiñenak zarata haundixagua eta dotoriagua aterako.

Baserritxarrek esan diguenez burdi-ardatza egitxeko pagua edo artia erabilli izan dira. Dana dala, Pedro Ziñua zanak esan zidanez beuren aitxaren esanetan astigarra edo azkarra zan onena: *azkarra laurdena, ardatzetan danik onena*.

Mutrikuko baserritxarrei ikasitxa dakitx batzuek kereixia ibiltzen zeuela soiñua joteko burdi-ardatza egitxeko, esan ere hala egitxen zeuen: *han burdixa soiñua joten*. Beste batzuek, berriz, pagozko ardatzaren gaiñian urkixa jartzen zeuen, *urkixa da txistu jotzaillia*.

Aspaldiko araudixetan errepasua eginda ikusi geinke debekatuta egon dirala txistua jotzen zeuen burdixak: *los carros que rechinen fuerte produciendo chirridos que puedan ser molestos al vecindario serán multados en sus conductores* (1867). Baitxa 1897ko ordenantzetan ere, *se prohibe que las carretas del país que conducen leña, abonos, cosecha, rentas, etc. chirríen dentro de la población*.

Idi paria burdixari tiraka.

Wilhelm von Humboldt prusiarrak 1799. urtian egindako bidaiaren berri eman zoan «Reiseskizzen aus Biscaya» lanian [Bocetos de un viaje]: *La impresión de hallarnos en país extranjero se renovó a nuestros primeros pasos por Guipúzcoa, por un ruído singular que sorprende y admira al viajero antes de acostumbrarse a él. Me refiero al chillido chirriante de los carros de bueyes que se encuentran a cada paso (...) un chirrido arrastrado y penetrante, que oído sobre todo a la caída de la tarde y de lejos, cuando al pronto no se descubre su causa, produce una impresión singularmente triste y opresora*. Itzulpena Miguel de Unamunorena da.

Juan Garmendia Larrañaga etnografuak irrintzi horren interpretaziua eman zoan: *este canto del carro rural tenía también su aspecto utilitario y práctico. Por medio de su chirrido anunciaba su paso a través del camino con harta frecuencia pedregoso y difícil. De esta manera facilitaba que el cruce con otro carro se llevase a cabo en el lugar más cómodo posible del recorrido*.

Aldabia.

1928. urtian *Arno Txiki* ezizeneko mutrikuarrak alkarte baten sorreraren berri eman zoan: *Lagun arte berria.- Erri onetan jarri dute lagun arte berri bat "Ixillik Club" deituaz. Bertako lendakari auturik Iturrino'tar Juan Antonio. Zorionak*. (Argia, 1928-01-08). Ixillik kluba? Ez gera ba mutrikuarrak isillik egotekuak.

Aldabia, tinbria eta tarranta

Ateko aldabia jo bihar izaten zan iñoren etxera deitzeko, *dan--dan*. Lehelengo pisurako behin jotzen zan, bigarrenerako bitxan, hirugarrenerako hirutan... 1948. urte inguruan lehelengo tinbriak aillegatu ziran Mutrikura. Ametzanian jarri zeuen lehelenguetakua. Txirrin edo tinbriek dexente aldatu zeuen herriko soiñu-paisajia.

R.M. Azkuek *tarranta* 'automobila' hitza jaso zoan 1905. urteko hiztegi ederrian, Zuberuako hitza zala azalduta: *algunos, en las inmediaciones de Atharratze, llaman así a este moderno vehículo, siendo este el nombre más aceptable de cuantos el pueblo le ha puesto en diversas regiones y hayan llegado a mi noticia*. Hitz horrek ez zoan euki arrakasta haundirik, beste batzuk nagusitxu ziran-eta: berebila, autoa, automobila, kotxea... Baiña, gerraurreko urtietan Mutrikuko prentsako kroniketan, behiñik behin, behin baiño gehixagotan topatu degu. 1922. urteko Malen eguna zala-eta, hau idatzi zoan «Arno-Mendi»k: *Txadon aundia gure au benetan, baña etxola txiki bat zirudian egun orretan. Ainbeste tarranta, zalgurdi ta abar etorri ziraden jendez beterik uri askotatik jaupa au entzuteko gogo biziarekin* (Euzkadi, 1922-07-27).

Hitz-berri edo neologismuak erabiltzen ziran orduan (*txadona* 'eleizia'; *jaupa* 'mezia'), eta, kasu honetan, baitxa herrixaren belarrira etorritxako hots-izen edo onomatopeia bat ere: *tarranta*.

Lehengo eta oraingo soiñu, hots eta zarata asko laga ditxugu bazterrian, baiña ezin danak aztertu: itsaso zakarrak ekarritxako olatuak, Beheko plazako komedientiei jotako txaluak, itsasoko sariak eruateko karruaren zaratia, aspaldiko motorrak, kaleko zapateruen maillu-hotsak, eskabetxian ziharduen andrien abots ederrak, kalbaixuetako goitxibeheren burpillen zaratia, amonak ematen ziguzen matxuen zaratia, zerrerixako zerria...

Josu Larrañaga Arrieta

Aldaketen kimua Goizeko Izarran

Egileak: Aimar Andonegi, Ayat Masbouh, Jare Arruabarrena, Izaro Elezgarai eta Nahia Beitia.

Elkarrizketatuak: Nerea Lekube, Ayala Garagarza, Elisabeth Solabarrieta, Alai Uranga, Ianire Daaira eta Eskarne Zurikarai.

50 urte baino gehiago pasa dira Goizeko Izarra ikastolak ateak ireki zituenetik, mende erdi pasa, ez da gutxi. Ordutik hainbat aldaketa egin izan dira ikastolan eta horien berri gehiago jakin asmoz Goizeko Izarrako zenbait irakasle ohiekin mintzatu gara aldaketek ikastolan nola eragin duten eta beraiek zer iritzi daukaten jakiteko.

Elkarrizketatutako irakasleen artean beteranoenak 30 ikasturte daramatza ikastolan, laster erretiroa hartzeko zorian, eta beste gehienek 5-14 ikasturte artean pasa dituzte Goizeko Izarran eskolak ematen.

Lehengo ikas-modutik gaur egunekora aldaketa nabariak izan dira bai hezkuntza aldetik eta baita aisialdi aldetik ere. Geletako ikasle kopurua asko jaitsi dela nabari da, bestalde argi ikusten da ikastolan eten handia, erabakigarria, ezarri zuela COVID-19aren agerraldiak. Olatu baten antzera iritsi zen eta eragina ere halakoa izan zuen. Hazi, handitu eta puztu zen uhin hura pasa zen hala ere, eta orain berriro baretasuna etorri da. Lasaitasun honetatik bideratuz, patioan zein ikastetxe barruan aldaketak egiteko momentua bilatu da. «Baina aldaketa handiena, orain arte korridoreetan ikusi ditugun eta jadanik jubilatu diren lankideen falta da» askok dioenez.

Esan bezala, COVID-ak sekulako eragina izan zuen. Momentu dramatikoa izan zen; inork ez zuen espero une batetik bestera ikastola itxiko zenik. «Eskola ixteko unea izan zen igerian ez dakien ume batek igerilekura zanga egitea bezala». Hasiera baten oso galduta sentitu ziren baina zuzendaritzatik emandako irizpide batzuekin lortu zen ikasturtea onik ateratzea. «Denok beldurrrak jota geunden, ez genekien zer egin; egun baten esaten ziguten bat gaixotzen bazen etxera joan behar ginela, gero txertoa hartu behar genuela, gero ezetz… Irakasle asko zer egin ez genekiela harrapatu gintuen. Egoerak teknologia erabiltzen jakitea eska-tzen zuelako batez ere, bai irakasleok bai ikasleek».

Hurrengo ikasturtean ikastolara bueltatzean, haur talde bakoitza espazio ezberdinetan ibili ahal zen bere taldetik irten gabe, eta honek patioko espazioaren erabilera erabat aldatzea eragin zuen. Orain berriro lehengo egoerara itzultzean gelditu den aldaketa bakarra izan da irakasleak jaisten direla patiora haurrak hartu eta uztera.

Aldaketa nabarmen ugari ekarri zituen gaitzaren garaiak gauza onak ere utzi zituen (begira diezaiogun alde onetik). Esaterako, parkean egindako aldaketak, alegia, umeek urte asko zeramaten jolasteko era berriak probatu gabe eta orain badute hainbat ekimen eta jolas bertan egin ahal izateko eremua.

Egitasmoa 2019 inguruan hasi zen mamitzen. Ikastolak aldaketa behar zuen ikuspegia erabiltzaile guztiek partekatzen zuten baina nondik ekin ez zekitela zeuden. Garaiko zuzendaritza taldeak proposamena egin ostean guraso elkartearen eta beste hainbaten laguntzarekin aurrera egitea erabaki zen. Haurrek jolasteko zuten metodologia eraldatzea zen xede nagusia. Gainera, aldi berean, ikastola berritzea eta ikasleei naturarekin elkartasun handiagoa eskaintzen dieten jolasteko aukerak eskaintzea. Irudimena lantzeko aukera eskaini nahi zitzaien. Kimua eta beheko patioko aterpea aurrerapen handiak izan dira ikastolan, eta nahiz eta haurrak txirrista eta dindandoak faltan hartu, egurrezko eraikinak jartzea aurrerapen handia izan da.

Batez ere, gurasoen eta irakasleen ideia izan zen hezkidetza aintzat hartuko zuen proiektu honi ekitea. Agenda 20-30 ekimenaren babesean ikasle batzordearen ekarpenak ere jaso ziren eta batasun handia eratu zen egin beharreko hobekuntzen inguruko lanean. Garaiko zuzendaria, Arantza, beste ikastetxe batzuekin harremanetan jarri zen ereduak erkatze aldera. Organo gorenaren onarpena jasota gurasoen nahiz udalbatzaren adostasunarekin Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzarekin burutu zuen obra Udalak.

Eraikuntza lanen zarata indartzen ari zela urduritasuna ere nabariagoa zen komunitatean. Hala ere, planoak erakutsi zizkietenean poza ere erraz zabaldu zen. Bi edo hiru urte pasa ziren, planoak, aurrekontua eta lanen hasiera data zehazten. Ekarpen guztiak jasota ahalik eta etekin handiena ateratzea zen helburua.

Badago dindandoen falta sumatzen duenik, nahiz eta bestelako baliabideak eskaini zaizkien haur eta beste erabiltzaileei. Irakasleen iritziz, aldaketa onuragarria izan da. Orain beste modu bateko jolasak egin daitezke. Egin denak ez du esan nahi erabat amaitu den egitasmoa denik, beti dago osatzen jarraitzeko aukera. Badago hain baikorra ez den ikuspegirik ere, zenbaitengandik hasierako ideia erabat bete ez deneko ustea ere jaso dugu. Batez ere, dindandoen eta txirristen hutsunea nabarmentzen dute halakoek.

Baikorrenek umeen irudimena lantzeko aukerak azpimarratzen dituzte. Umeek ezkutatzeko eta jolasak modu pribatuan garatzeko joera izaten dute. Egitura honek babesteko eta gordetzeko aukera eskaintzen die, ohiko parkeetakoaren aldean eskaintza aparta irizten diote. Azkenean patio honek gehiago bultzatzen zaitu irudimena, sormena, joku-sinbolikoa, hizkuntza eta beste hainbat alderdi lantzera. Aurrekoa erabilera bakarreko eremua zen, hau aberasgarriago da, batez ere txikienentzat. Gune desberdina eta askotarikoa dauka ikastolak zein bertako erabiltzaileek. Berrikuntzak jardueren dinamika mugiarazi du eta aurrera begirako asmoei arnas berria eskaini. Beti izango da egokitzeko eta moldatzeko aukerarik, izan ere, biziak aurrera jarraitzen du, elkarrekin bizi dezagun!

ELIKAGAI-BANKUA

ELKARTASUNA ARDATZ HARTUTA

Mutrikuko Institutua

Mutrikun badago eraikuntza bat azken hilabeteetan jendearen ahotan askotan erabili dena, Komenduaz ari gara. Baina, ba al dakigu zer den, nor bizi izan den eta gaur egun ze funtzio betetzen duen hainbat pertsonarentzat?

Duela hainbat urtetatik mojentzako etxe bat izan da Komendua eta bertan egiten zuten eguneroko bizimodua, baina duela 20 urte inguru joan egin ziren Mutrikutik.

Urte askotan hutsik egon ondoren 2011n berriro hasi zen mugimendua Komenduan. Boluntario talde batek elikagai bankuko proiektua jarri zuen martxan udalarekin batera, baina herritar batzuek ez dakite honek ze garrantzia duen herrian zein herritarrentzat.

Elikagai bankua beharra duen jendeari elikagaiak eskaintzeko zerbitzua da. Ideia hau elikagai bankuko kideen eta udalaren artean antolatu zuten. Proiektua orain dela 13 urte jarri zen martxan eta gaur egun ere zutik dirau. 10 boluntario inguru dira bertan lan egiten dutenak, baina pertsona gehiago behar dituzte, batez ere jende gaztea, gero eta jende gehiagok jasotzen duelako laguntza hau. Elikagai bankuak 40-46 familiari laguntzen dio eta arreta jasotzen duen pertsona kopurua 100-106 ingurukoa da. Herritarren artean ondo ikusia da herrian elikagai banku bat ezartzea, beste herri batzuetan ere ikusi zutelako egitasmo hau martxan.

Elikagai bankuan hilabetero ematen dituzte laguntzak. Asteazkenetan kamioia etortzen da Komendu kanpora eta janari guztia barrura sartzen dute. Europatik ere bidaltzen dute janaria elikagai bankura, janari horri «azken minutuko» janaria deitzen zaio, iraungitze data amaitzen ari zaiolako. Kaxetan banatzen dute familia bakoitzeko pertsona kopuruaren arabera. Bi pertsonako familia bada, janari kopurua txikiagoa izango da seiko familia batena baino. Kaxa horietan denetarik jartzen dute: barazkiak, lekaleak, pasta, haragia, arraina, esnekiak... Baina fruitak plastiko batzuetan sailkatzen dituzte eta plastiko horiek zenbaki bat dute, familia horretako pertsona kopurua adierazten duena.

Zenbakiaren arabera ordenatzen dituzte fruta poltsak eta kutxetako janariarekin batera, eta ostegun goizetan antolatzen dute banaketa.

Familiek elikadura bankuko txartel bat dute eta bakoitzak zenbaki desberdin bat du. Bertan lan egiten duten boluntarioek zerrenda bat dute familia bakoitzaren zenbakiekin eta familiako pertsona kopuruarekin. Baina boluntarioek ez dakite zeintzuk diren, ezta ze egoeratan dauden ere. Edozeinek ez du jasotzen zerbitzu hau, jasotzeko baldintza batzuk bete behar direlako, adibidez, Mutrikun errol-



datuta egotea eta soldata txikia izatea. Informazio hori jasotzeaz udal gizarte-zerbitzuak arduratzen dira.

Antolakuntza honetan arazo batzuk ere izan dituzte, batik bat, xaguekin eta lapurrekin. Xaguek kutxetatik kanpo zegoen janaria jaten zuten eta hori aintzat hartuta segurtasun-neurri batzuk hartu zituzten. Horietako bat janaria kaxetan estalita gordetzea izan zen, eta orain arte emaitza onak izan ditu. Aipatu dugun moduan lapurrekin ere auzi bat baino gehiago izan dute, baina ateak eta leihoak berriztu ondoren ez da errepikatu lapurretarik.

Egitasmo eder honen kabia izan denak, ordea, aldaketak jasan behar ditu. Herrian hain esanguratsua izan den Komenduan berrikuntza batzuk egingo dituzte udalbatza osoaren oniritziarekin. Hortaz, elikadura bankuak ezin izango du bertan jarraitu zerbitzu hori eskaintzen eta ziklo hau amaitu egingo da laster. Aitzitik, bidea ez da amaitu boluntarioentzat, kokagune berriaren zain daude egiten duten lanari jarraipena eman ahal izateko.

Bejondeiela!

ASTIGARRAGA ANAIAK, S.L.U
ERAIKETAK
Tel.: 943 60 40 86 / 667 411 938
e-mail: astigarragamutriku@outlook.es
Txurruka Tteak., 28 behea - 20830 Mutriku (Gipuzkoa)

IZKIREN HAZKUNTZAN

«Kardala» Lanbide Heziketako Mutrikuko Akuakultura Eskolara egin dugu bisita, eta lehen kurtsoan ari diren bost ikaslerekin jarri gara solasean euren ikasketen berri jakiteko. Alvaro de Valentín Gamazo (Santander), Eneko Lapeira Lasa (Eibar), Yared Machuca Martín (México), Imanol Agirre Eizagirre (Orio) eta Daiana Pérez Castro (Uruguay) dira ikasle horiek, eta atseginez azaldu dizkigute ikasten ari diren gaiak eta eguneroko bizipenak, elkarri etengabe txanda hartuz.

Lehenengo galdera zuei, Diana eta Yared: Nola jo zenuten hain urrutitik Mutrikuko eskola honetara?

Txikitan Asturiasen bizi izan nintzen —dio Daianak— baina Uruguayra bueltatu ginen eta orain urte batzuk berriro ere Espainiara egin genuen. Ezagun batzuk eskola hau bisitatzera etorri ziren, eta haien bidez jakin nuen zer gauza ikasten ziren hemen, eta informazio horren ondoren eman nituen hurrengo urratsak eskola honetako ikasle izateko.

Nik, dio Yared-ek, albaitaritza ikasten ari nintzen unibertsitatean. Nire aukeren muga ireki nahi izan nuen, eta «Mutriku-peces» ordenagailuko bilatzailean idatzi, eta hara non aurkitzen naizen: ez hain sinplea, baina bide horretatik jokatu nuen.

Aurten Lanbide Heziketako lehen kurtsoan zaudete. Esan digutenez, izkiren hazkuntzan ari zarete. Zergatik aukeratu duzue krutazeo hori, eta ez itsasoko beste espezieren bat?

Aurrez esan nahi genuke lehen kurtsoan egiten ditugun lan edo praktikak zabalak direla, zenbait espezie ezberdinekin aritu garela, baita, jakina, instalazioen mantenuan ere, eta bigarren kurtsoan definitzen joango garela aukeratzen dugun proiektua bere esparru guztiekin, enpresa erreal bat montatzera joango bagina bezala. Horregatik, aurten lantzen ari garena kurtsoko eginkizun bat da, inola ere ez definitiboa. Kurtsoaren bukaerara iristen ari garen honetan, gure praktikak zentratzen joan gara, bi arlotan batik bat: urraburuak eta izkirak. Urraburuak oraindik oso txikiak ditugu, eta izkiren hazkuntzan aurreratuago gaude.

Aukeraketa egiteko orduan, izkiren zein urraburuen merkatua oso preziatua zela ikusten genuen, eta euren hazkuntza ez zela hain zaila, beraz, ildo horiek jarraitzea erabaki genuen kurtso

honen bukaerako.

Zeintzuk pausu eman dituzue izkirak hazten joateko?

Lehenengo, teoria ikasten dugu, hazkuntzaren fase ezberdinetan hazteko behar duten parametro nagusiak zeintzuk diren jakiteko. Oso kontuan izan behar ditugu uraren kalitatea, bere tenperatura eta hasierako fase horietan behar duten janari mota.

Ondoren, ontziak prestatzen hasten gara, eta, jakina, bereiztu egin behar ditugu sare-begi ezberdinekin izkira amak izango diren lekuak, zeren, bestela, arrautzak askatzean jan egingo lituzkete. Naturan ur korronteak zabaltzen ditu arrautzak; gure kasuan, sare-begi ezberdinak jartzean lortzen dugu arrautzak ontziaren behe aldera joatea izkirak goi aldean mantentzen diren bitartean

Aipatu dugun tenperaturan arrautzak eklosionatu egiten dira, eta sortzen diren larbei jaten eman behar zaie. Lehen fasean fitoplanktona da euren jakia —alga oso txikiak—. Apur bat hasten direnean zooplanktona ematen diegu jaten —artemia krustazeo oso txikiak—, algak zein krustazeoak, geuk ekoiztutakoak. Tamaina bat hartzen dutenean, pentsu pixkat ematen hasten gara —umeei berdurak ematen hasten garenean bezala—. Pentsua izango da geroago euren jakia, merkeago gertatzen delako pentsua erostea, fitoplanktona edo zooplanktona lortzea baino, nahiz eta Europako enpresak diren honen ekoizleak. Eta gizentze fasea hasten da.

Beste kontu bat ere izan behar da kontuan: Krustazeoek euren hazkuntzan azal-berritu egin behar dute, euren gorputza ez delako sartzen beren oskolean. Oskol zaharra jaurti, eta beste oskol berri bat sortu behar dute. Egoera horretan izkirak zaurgarriak dira, eta kideen aldetik erasoak jasotzen dituztenez —kanibalismoa praktikatzen dute—, babestu egin behar dira. Naturan leku ugari dituzte ezkutatzeko, baina gure tankeetan, tutuak, harriak eta abar ari gara jartzen babesleku bezala erabil ditzaten. Antzekoak diren langostinoek, ordea, ez dute arazo hori, ez dute elkar jaten.

Behin hazita daudenean zer egiten duzue?

Oraindik ez gara horretan hasi, baina zikloa itxi beharko lukete: ugalketa. Ez gara puntu horretara iritsi, baina proiektu baten helburuetako bat merkaturatzea izango litzateke.

Txapa bero batetik pasatzea ere ez legoke gaizki kurtso bukaerako lagun arteko ospakizun baten!

Aurtengo ikasketak datorren urterako oinarri dira?

Bai. Esparru ugari ukitu ditugu ezaguera zabal baten oinarri sendoa eskuratzeko. Datorren kurtsoan, are eta gehiago sakonduko dugu horietan, baita alor praktiko zehatzagoak landu ere. Hazkuntza kontuez gain, prestatzen joango gara enpresa bat muntatzeko gai izan gaitezen. Hau da, merkatua ezagutu behar dugu gauzatzen dugun proiektua errentagarri izan dadin. Instalakuntzen diseinua eta kostuak analizatu, distribuzio sare bat gauzatzeko gai izan, eta legezko arloen jakitun izan, bai ingurune arloan bai lan arloan.

Bigarren kurtsoan ari direnen proiektuak edo aurrez egin direnak ere ezagutzen ditugu, oso hurbiletik batzuk. Adibidez, aurten talde batek 5.000 urraburu hazi dituzte 10 gramoko tamainaraino, eta enpresa bati saldu dizkiote, diru iturri bat gehiago izateko, zeren, ia ziur, diru iturriak lortzea izango da guretzat hemendik ateratzean zailtasun handiena.

Zeintzuk dira hurbilean eman nahi dituzuen urratsak?

Udara Santanderreko Ozeanografia Institutuan pasatzeko lekua dauka jada Alvarok. Enekok Donostiako Akuarioan egingo du lan. Yaredek Elgoibarko maskoten denda baten lan egiteko du hitz eginda, non animaliak eta arrainak saltzen dituzten. Imanolek Aginagako «Viveros Eizagirre» izango du lan-leku. Eta Daianak Donostiako «Biobide» bioteknologia enpresa du jomuga.

Eta esperientzia berri honetan nola aurkitzen zarete?

Kanpokoak garenok Euskal Herrira nahiko ondo egokitu gara, hizkuntzara egokitzea kostatzen bazaigu ere. Hala eta guztiz ere, tabernan gauzak eskatzeko moldatzen gara.

Kardala Institutua bera eta bertako egunerokoa oso atsegina da. Beste zenbait eskolatan ez dituzte hain eskuragarri arlo praktikoak. Giro ezin hobea dugu praktikak lan taldeetan egiteko, eta irakasleriaren hurbiltasuna hain lagun artekoa da, merezi duela esperientzia hau Mutriku honetan bizitzea.

Asko ikasi dugu.



RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA
Hondartza 3-4, behea
31 postakutxa
20820 DEBA
Tel. eta faxa: 943 192 249
Mob. 629 639 685
629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmina.com

....ZORIONAGURRAK....

DANEL

Zorionak! Maiatzean 6 urte bete duzulako mila zorion etxeko guztion partez, bereziki Aner, Adei Naiane Ibai Enaitz ta Eber. Muxuak! Aupa Txapeldun!

OINATZ

Zorionak! 7 urte beteko ditxuzulako maiatzaren 21ian! Jarraitxu zean bezelako jator eta alaixa izaten!! Muxu erraldoiak etxekuen partez!

ELENA

Apirilaren 7an 8 urte! Alaitasunez bizi urteak eta muxu haundi asko zuretzat gurasoen eta ahizparen partez!

AINHOA

Zorionak eta urte askotarako maiatzaren 20an bat gehiago bete dituzulako. Besarkada eta matxo haundi bat Mutrikuko familia guztiaren partez.

KARLA

Maiatzaren 7an urteak bete dituzula eta, zorionak eta belarritik hamabi teinkada amona eta osabaren partez!

AIUR

Zorionak! Maiatzak 25ian 6 urte haundi. Saturnoaino ta bueltan maitxe zaitxugu. Matxo erraldoi bana etxeko danon partez!

IOSU eta ANTONI

Zorionak Iosu eta Antoni!!! Maiatzaren 11n zuen urrezko ezteiak! Barre zoriontsua orduan, berdiña orainguan ere. Jarraitxu horrela urte askuan!!! Matxe matxe. Txorixatarrak

IOSU eta ANTONI

Maiatzak 11n 50 urte ezkondu egin zinatela. Zorionak eta musu potolo bat etxekoen partez. Segi holaxe!!!

YARE

Zorionak gure etxeko printzerari 3 urte bete ditxuzulako, atxona-amonak eta etxeko guztiak maitasun osoz.

PEIO

Zorionak Peio! ondo pasa zure urtebetetzia, prestatu danontzako bazkaria! Zorionak osaba Peio! Etxekoak.

LIBE

Zorionak ,Libe, ekainaren 5ean 4 urte! Ondo pasa etxeko danon partez, Txiton partez ere bai!

IZADI

ZORIONAK urte eder on askotako IRADI, etxeko danon partez! 13 udaberri, jarraitxu ametsak sortzen eta lortzen!

GAROA

Zorionak Garoa!! Maiatzaren 29an 12 urte eder betetzen dituzulako. Mila muxu familaren partez!!

SARA

Zorionak geure printzesa!! Matxe zaitxugu! Luken, Alen, Ruben ta izebak!

UXUE

Zorionak Uxue zure 11. urtebetetzean! Muxu handi bat Ametz, osaba eta izekoren partez.

LAIA

Zorionak gure etxeko txiki bihurriari!!! 6 urtetxo gure bizi-pozak, mila patxitoo txitxirri...

BEGO

ZORIONAAAK! Zu zara gure eredu. Indarra, bizipoza eta irribarre bat ahoan, jarrai ezazu horrela urte askoan!

OIHANE

ZORIONAAAK! hamaikagarren bira eman diozu eguzkiari! Mundial ospatu zure eguna, maitxe zaitxugu!!



MANOLO eta MAXIMINO

Maiatzaren 7an 78 urte bete dituzue. ZORIONAK eta BETI AURRERA!!!



JOSE LUIS

Zorionak munduko atxona onenai!!!! Prestatu txokolatada!!!!!

LEA

Zoriooonak Lea!! Zazpi kandela, zazpi teinkada eta mila muxu zuretzat! Izugarri maitxe zaitxugu!

Argazki Zaharrak

Mollako emakume kuadrilla 1998ko udan
Juanita Lauzirika «Koostei», Tomasa Arkotxa, Dorita Uranga, Jaione Arreitunandia, Koro Elezgarai, Evarista Arreitunandia eta Agurtxa Mendizabal.



Ederrena zinemaren atarian 1966 urtean
Karmelo Urreisti «Mixkia», Ramon Basurko «Txanbel» eta Joxemari Flores.

MAIATZA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna	ostirala	larunbata	igandea
20 Apraiz	21 Apraiz	22 Apraiz	23 Apraiz	24 Lasuen-Ele	25 Lasuen-Ele	26 Lasuen-Ele
27 Zalduegi	28 Zalduegi	29 Zalduegi	30 Zalduegi	31 Burgoa		

EKAINA

Larunbat goizean: (1) Lasuen-Elezgarai; (2) Lon Apraiz

					1 Burgoa (2)	2 Burgoa
3 Lasuen-Elez	4 Lasuen-Elez	5 Lasuen-Elez	6 Lasuen-Ele	7 Apraiz	8 Apraiz	9 Apraiz
10 Burgoa	11 Burgoa	12 Burgoa	13 Burgoa	14 Zalduegi	15 Zalduegi (1)	16 Zalduegi
17 Apraiz	18 Apraiz	19 Apraiz	20 Apraiz	21 Lasuen-Ele	22 Lasuen-Ele	23 Lasuen-Ele
24 Zalduegi	25 Zalduegi	26 Zalduegi	27 Zalduegi	28 Burgoa	29 Burgoa (2)	30 Burgoa

EGUNEKO GUARDIA ZERBITZUA
09:00 - 22:00
Larunbat goizetan 09:30-13:00
Igande goizetan 11:00-13:00

Lasuen-Elezgarai.....626 611 392
Lon Apraiz.....630 055 097
Hiart Burgoa (Deba) 667 338 890
Amaia Zalduegi (Deba)... .669 262 201

GAUEKO GUARDIA ZERBITZUA
22:00 - 09:00
Mikel Lekunberri Alberdi...943 20 42 30
Isasi 31, 20600 Eibar

AGENDA

.....MAIATZA.....

21	Kultur aniztasunaren Nazioarteko Eguna
23tik · 02ra Zabiel	Ikasleek margotutako koadroak
25 · 11:00 Portuan	Traineruak. Mutrikuko XXIII. bandera
· 16:30 Portuan	Mutrikuko X. Triatloi Sprinta
· 19:00 Beheko Plazan	Plaza Dantzak, *Gure Ametsa*rekin
26 · 09:30	Gipuzkoako Orientazio Liga
28 · 17:15 Liburutegian	«Baleak salbatzera goaz» ipuin kontaketa
·	«Kirol elikadura» jardunaldia
29 · 17:30 Liburutegian	Uxue Alberdirekin solasaldia.
30 · 19:00 Zabielen	Leizeetako bizidunak Olatz bailaran
· 17:30 Emagunean	Gizonak parekidetasunerantz

.....EKAINA.....

01 · Goizean Herrian	Kantujira Anaiarte Biltokiarekin
02 · 08:00 Goiko plazan	Arnoko mendi-martxa
· 09:30 Goiko plazan	Aran-Trail mendi lasterketa
07 · 19:00 Saturraran	Mantalingo alaba: Mikel Etxaburu
08 · 09:00 Beheko plazan	Merkatu txikia+Azoka solidarioa Sahararen alde
· 09:00 Beheko plazan	Umeen Euskal Jaia
10 · 18:30	Lotune: Bilera irekia
10etik 14ra ·	Aste musikala
10etik 14ra · Zabielen	«Zero zabor uretan» erakusketa
12 · 17:30	Gizonak parekidetasunerantz
13 · 10:00	Atzerritartasun Aholkularitza Juridikoa
15 · 14:00	Anaiarte eguna
·	Ikastolako jaialdia
17tik · 02ra Zabiel	Arte eskolako erakusketa
20	Errefuxatuen nazioarteko eguna
22	**XIRI EGUNA**
23	SAN JUAN SUA
29	SAN PEDRO eguna

BISITA GIDATUAK

· Zazpi hondartzak · Mutriku marinela ·
· Olatu planta · Nautilus, Flyscheko fosilak ·
· Arrietakua jauregia ·

Egunak, ordutegiak eta hizkuntza kontsultatzeko:
Turismo bulegoan edo www.geoparkea.eus helbidean

aldizkaria@kalaputxi.eus
whatsappa 635748393
ekaineko aldizkarian
argitaratzeko
ekainaren 7rako
bidali zuen mezuak

MENDI-IRTEERAK 2024

Ekainak 21, 22 eta 23

Asteburua Pirinioetan

Ekainak 22, larunbata
Canfranc estación - Carretón de Ip - Pico de la Moleta - Ibon de Iserias - - Valle de Izas - Canfranc estación.

Ekainak 23, igandea
Col de Somport - Pic de Arnousse - Pic de Belonseiche - Ibon del Escalar - Astun

Uztailak 7
Altube gaina - Gorbea - Barazar (Uren banalerroa)

ODOLA EMATEA 2024

ekainak 21

· abuztuak 23 · urriak 18 · abenduak 20 ·

17:00etatik 20:30ak arte anbulatorioan

Gipuzkoako Odol Emaileak

Igualatorioarekin eta
Osakidetzarekin
lan egiten dugu

Audioprotesista
egunero zentroan
Audiometriak doan

OPTIKA VITORIA

OPTIKA • AUDIFONOAK

ERRBERA 16 • 48700 ONDARROA • 946134138 • mvitoria@cnoo.es

TXIMAK

ILEAPAINDEGIA

Eva Ibarrola Urreisti
Jose Mª Altzibar 18 · 20830 MUTRIKU
ileapaindegiatximak@gmail.com
Tel. 943 60 30 03